

VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA 2016

4. kronika: **Euskaldunen hizkuntza trebetasuna**

Hemen euskaldunen gaitasun erlatiboa lantzen dugu. Euskaldunak 3 sailetan bana daitezke, euskararen eta frantsesaren erabiltzeko duten errextasuna edo trebetasuna kontuan hartuz.

- euskal elebidunek euskaraz errazago hitz egiten dute ($E > F$) ;
- elebidun orekatuek errextasun berdina dute bi hizkuntzetan ($E = F$) ;
- erdal elebidunek frantsesez erretxago hitz egiten dute ($E < F$).

Gaitasun erlatiboaren bilakaera (%)

Iparraldea	1996	2016
Euskal elebidunak	% 34	% 21
Elebidun orekatuak	% 32	% 38
Erdal elebidunak .	% 34	% 41

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa 2016

Gaitasun erlatiboaren proportzioak ikusiz, ohargarri da duela 20 urte hiru elebitasunak berdintsu zirela : euskal elebidunak % 34, elebidun orekatuak %32 eta erdal elebidunak % 34. Orain euskal elebidunak 13 puntuz gutitu dira. Elebidun orekatuek 6 puntu irabazi dituzte eta frantsesez trebeago direnak %7 gehiago dira. Hemen euskararen erabilera auzian dago zeren eta mintzatzekoan elebidunak hobekienik dakien hizkuntza maizenik erabiltzen baitu.

Gaitasun erlatiboa adinaren arabera (%)

Adin-taldeak	Iparralde	65 eta +	50 – 64	35 – 49	25 – 34	16 – 24
Euskal elebidunak	21	31	20	16	9	9
Elebidun orekatuak	38	32	40	50	40	27
Erdal elebidunak	41	37	40	34	51	64

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa 2016.

Zer agertzen da orokorrean? Euskara errexkiago mintzaten dutenen ehunekoa gorenean da hiztun zaharretan eta gero ttipitzen da adin multzo

gazteagoetan. Alderantziz frantsesa errexkiago derabiltenen proportzioa emendatzen da norabide berean.

Hurbilagotik ikus dezagun zer gertatzen den adin multzo bakoitzean. Orotan elebitasun orekatuen ehunekoa indartsu da, bereziki 35-49 urtekoetan, %50.

Zaharretan aurkitzen da euskara errexkiago mintzatzen dutenen ehuneko handiena, %31. Gero errextasun hori laster ttipitzen da, berehala 9 punduz eta gero hiztuna gazteago eta erraztasuna ahulago da, ehuneko 9 arte 34 urtez petikakoetan.

Alderantziz erdal elebidunak gehiengoan dira adin multzo orotan salbu 35-49 urtekoetan, bereziki bi adin talde gazteenetan, % 51 eta % 64. . Hiztunak gazteago eta frantsesa erretxago zeie, %37entzat zaharretan, %64entzat gazteenetan.

16-24 urtekoetan euskaldunen kopurua handitu da, baina gaitasun erlatiboa ahuldu: 25-34 urtekoek konparatuz elebidun orekatuak 13 punduz gutitu dira (% 27 versus % 40) eta erdal elebidunak 13 punduz emendatu (% 64 versus % 51). Kantitatean irabazi dutena ez lukete hizkuntzaren kalitatean galdu behar.

Trebetasuna eta erabilera

Hizkuntza erabilera neurtzeko, Soziolinguistika inkestek 5 mintzamolde erabili dituzte:

- *beti euskaraz;*
- *euskaraz erdaraz baino gehiago;*
- *berdin euskaraz eta erdaraz;*
- *euskaraz erdaraz baino gutiago;*
- *beti erdaraz.*

Bestalde, aukezpen ofizialetan, hiru mintza-jokadideren sintesia egin da:

1. Euskal mintzamoldea : beti euskaraz, euskaraz frantsesez baino gehiago edo berdin. Hau da euskararen erabilera trinkoa aurkezpenetan neurtua dena.
2. Noizbehineko euskal mintzamoldea : euskaraz frantsesez baino gutiago edo oso gutiago.
3. Erdal mintzamoldea : beti frantsesez.

Aurkezpen kalitatibo honek balio du pedagogia mailan ikusteko egoera ezberdinetan euskaldunek nola hitz egiten duten. Baina soziolinguistika mailan ez da argi ikusten zenbat elkarrizketa euskaraz egiten diren eta zenbat frantsesez. Hemen neurketa kantitatibo horren entsegu bat egin da,

mintzamolde guziak kontuan hartuz egoera bakoitzean eta miltzamolde bakoitzari koefiziente bat emanaz euskarari ematen dion lekuaren arabera :

- *beti euskaraz* = % 100 = 1;
- *euskaraz erdaraz baino gehiago* = % 75 = 0.75;
- *berdin euskaraz eta erdaraz* = % 50 = 0.50;
- *euskaraz erdaraz baino gutiago* = % 2 = 0.25;
- *beti erdaraz* = % 0 = 0.

Metodologia honen bidez badakigu hiztunek egoera batean erabiltzen duten euskararen heina. Adibidez etxean euskal elebidunen euskararen heina %74 agertzen delarik elertu behar da elkarrizketen hiru laurdenak euskaraz egiten dituztela, eta ondorioz laurden bat frantsesez.

Euskararen heina gaitasun erlatiboaren arabera (%)

Zenbat euskara	Etxean	Bizilagu narekin	Seme alabekin	Anai arreben artean	Lagun-arte	Herriko etxean
euskal elebidunek	74	76	68	89	77	45
elebidun orekatuek	43	36	44	61	59	40
erdal elebidunek	20	16	19	25	26	12

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa 2016.

Zer erakusten digu taula honek?

- Komunikazio egoera oro kontuan hartuz, ikusten da euskaraz trebeago direnek erabiltzen duten euskararen bana bestekoa %72ren heinean dela. Beraz maiztasun handia. Eta bereziki anai-arrebekin (% 89) eta lagunartean (% 77). Burasoak euskaraz trebeago direlarik elkarren artean usu euskaraz mintzo dira (%76), askoz gutiago seme-alabekin (% 68) ez baita jarraibide ona euskaren erabilera sustengatzeko. Alderantziz izaitekotz, anai-arrebak beren artean %89etan euskaraz ariz, haurrek diete etsenplua ematen burasoei.

- Baldintza berean zenbatuz, euskaraz eta frantsesez berdin trebe direnen bana bestekoa % 47ren heinean da. Normal den bezala, bi hizkuntzetan berdin trebe, bi hizkuntzak berdintsu erabiltzen dituzte. Haatik euskarari leku gehiago ematen diote, anai-arreben artean eta lagunartean (% 61 eta 59 hurrenez hurren).

- Frantsesez trebeago diren euskaldunen bana besteko erabileraren heina (%20) ez da gutiestekoa, dakigularik elebidunek hizkuntza trebeena erabiltzen dutela ohizko komunikazioan. Jakinez erdal elebidunak direla

gehiengoan bereziki 16-25 urtekoetan (% 64) estrategia bat asmatu behar da, denbora berean hizkuntza gaitasuna hobetzeko eta erabilera bultzatzeko. Arnasguneetan dira bi helburuak errexkienik erdiesten.

- Herriko etxean da euszararen erabilera ahulena, zeinahi izan dadin hizkuntza gaitasuna. Hemen erabilera erakundearen esku da neurri handian. Halere erabilera trebetasunaren arabera da.

Lehen hizkuntza eta euskararen erabilera.

Lehen hizkuntza da haurtzaroan etxean mintzatu den hizkuntza da : edo euskara bakarrik, edo euskara frantsesarekin, edo frantsesa bakarrik. Lehen hizkuntzaren arabera hiru euskaldun mota bereiz ditzazkegu :

- Lehen hizkuntza euskara eta orain euskaldun, hauek dira jatorrizko euskaldunak edo euskaldun zaharrak (gero eta gazteago badira ere)
- Lehen hizkuntza frantsesa eta orain euskaldun, hauek dira euskaldun berriak.
- Lehen hizkuntza euskara frantsesarekin eta orain elebidun, hauek dira jatorrizko elebidunak. Ikus dezagun batzuk eta bestek euskara zer heinetan erabiltzen duten (%)

Euskararen heina lehen hizkuntzaren arabera (%).

Zenbat euskara	Etxean	Bizilagu narekin	Seme alabekin	Anai arreben artean	Lagun-arte	Herriko etxean
jatorrizko euskaldunak	47	39	42	65	53	35
jatorrizko elebidunak	28	23	30	39	37	18
euskaldun berriak	28	39	51	18	42	24

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa 2016.

Nola irakur taula hau? Jatorrizko euskaldunak etxean 100 elkarrizketatik 47 euskaraz egiten dituzte (beraz % 53 frantsesez). Nondik jalgia da % 47 hau?

Emaitza gordinetan agertzen da “Euskaldunzaharrak beti euskaraz %21, euskaraz gehiago %16, euskaraz erdaraz beste (berdin) %19, erdaraz gehiago %18, beti erdaraz %26.”

Gorago aipatu koefizienteak aplikatuz gehiketa hau dugu: $21 + 12 + 9,5 + 4,5 + 0 = \%47$.

Euskaldunen tipologia, zeinek erabiltzen dute gehienik euskara? Ehunekoan bana bestekoa egiten badugu jatorrizko euskaldunak % 47

elkarrizketa euskaraz egiten dituzte, bereziki anai-arreben artean (%65) eta lagun artean (%53).

Euskaldun berriak bigarren lerroan dira euskararen erabileran % 35 bana bestekoarekin. Jatorrizko euskaldunen parean dira euskara bikotean erabiltzeko (% 39). Baina euskaldun berriek askoz euskara gehiago erabiltzen dute seme-alabekin jatorrizko euskaldunei konparatuz (%51 versus %42). Kartsutasun berezi baten seinale familia bidezko euskararen transmisioan.

Jatorrizko elebidunak dira euskararen erabiltzaile ahulenak, %29ren bana bestekoarekin. Haurtzaroan bi hizkuntzak erabili dituztenek badute ezaugarri berezi hau, maiz frantses hutsera lerratzen direla: bikotean %65, seme-alabekin %51, lagunekin %25, udaletxean %64.

Oro har, erran dezakegu lehen hizkuntzak eragin handia duela euskararen erabileran, baina gaitasun erlatiboak baino gutiago. Froga familia eta eskola elkarren osagarri direla euskararen transmisioan.

Erramun Bachoc, 2017-11-11.

